

## **Intza Barandiaran: “Etorkizuna eraiki daitekeela ikusten duten pertsonekin aritzea, oso atsegina da”.**

Irrikatzen dago, udaberria, behingoz iristeko: “kostatzen ari zaio”, gehitu du. Intza Barandiaran (Ataun, 1982), beti egon izan da Naturarekin hartu-emanean. Biologian eta Ingurumen Zientzietan lizentziatua da, eta hiru seme-alaben ama; duela urte eta erditik hona, berriz, Lazkaoko baratze sozialaren ‘bultzatzaile nagusietakoa’ da.

Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen zuzenduriko proiektu hau 2012an sortu zen Caritas Goierri erakundeko boluntarioen ekimenez. “Santa Ana komentuko ahizpa zistertarrek ere parte handia dute honetan”, erantsi du Intzak. “Haiei esker gaude hemen, ateak eta beren baratzea zabaltu zizkiguten-eta asmoa gorpuztu ahal izateko”. 2014. urtetik, CARITAS GIPUZKOAKo Sarea Fundazioak ere parte hartzen du ekimenean.



### **Baratzea lantzen zailduta, urte eta erdi daramazu Lazkaokoan.**

Horrela da. Ingurumen-hezkuntzan egin izan dut lan, eta orain gogotsu ari naiz erronka honetan. Baratzea koordinatzen dut, hasi logistikatik eta planifikazioraino. Beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeak izugarri betetzen nau.

**Baratzean, ez zarete mugatzen lurrarekin loturiko guztia erakustera; beste alderdi batzuk ere lantzen dituzue.**

Baratzea, tresna bat da, bertaratzen diren pertsonak etxetik atera daitezten, gizarteratu daitezten, eginbehar bat izan dezaten, hizkuntza bat ikas dezaten... Eta, jakina, lanbide bat ikas dezaten, etorkizunean honetan lan egin ahal izateko. Hori da gure ahalegina eta ametsa!

**Zer profil dute Lazkaora datozen pertsonak?**

Batetik, Goierriira iritsi berriak diren immigranteak daude: askok ez dute ia ezertxo ere. Baratzea beren oinarrizko beharrianak asebetetzeko modu bat da. Badira denbora luzez langabezian daudenak ere.

Bigarren profila, buruko gaixotasuna duten partaideena da. Bi kasu ditugu horrelakoak, Hurkoa eta Gizaide fundazioetatik bideratuta. Hurkoa fundazioa adineko pertsonen eta buruko gaixotasuna duten pertsonen eskubideen arretan, zaintzan eta defentsan aritzen da, eta Gizaide, berriz, buruko gaixotasuna duten pertsoneri laguntzen die ahalik eta autonomia eta bizitza-kalitate handiagoa lortu dezaten.

**Baratzea onuragarria da denentzat.**

Oraindik orain, baratzeterapiako jardunaldi batzuetan izan naiz, eta han nabarmentzen zutenez, Naturarekin hartu-emanen egote hutsa, mesedegarria da. Frogatuta dago. Aire librean eginkizun bat izateak onura asko ditu. Gure partaideetako baten psikiatrak esan dit hilabetean hobekuntza antzeman diola.



**Zenbat pertsona ari dira prestakuntza jasotzen?**

Ikasturtea 15 lagunekin hasi genuen, baina gaur egun hamaika bertaratzen dira, besteek "lantxo" batzuk aurkitu dituztelako. Albiste

ona da hori. Partaideak hiru egunetan bertaratzen dira ikastera eta esperimentatzera. Denok, astearteetan elkartu eta antolatzen gara: asteko lanak banatzen ditugu eta arlo teorikoa jorratzen dugu. Asteazken eta ostiraletan, berriz, lurra lantzen dugu. Aurten batez ere baratzearen planifikazioa ari gara jorratzen.

### **Boluntarioen lana nabarmena da.**

Jakina. Boluntarioek nik baino denbora gehiago daramate proiektuan. Pentsa! Niretzat oso garrantzitsua da haien laguntza eta babesa, lortu nahi ditugun helburuak betetzeko. Harremanen alderdia bultzatzeko laguntza handia da boluntarioena: aniztasunari esker hobeto iristen gara pertsonengana. Denok ez gara berdinak, gure izateko modua dugu, bakoitzak bere gaitasunak ditu... Zenbat eta gehiago izan, orduan eta hobeto iritsiko gara partaideengana.

### **Nongoak dira baratzeara hurbiltzen diren partaideak?**

Joan den urtean gizonez inguratuta egon nintzen eta aurten hiru emakume etorri zaizkigu. Jatorria? Aljeria, Maroko, Nepal, Nigeria eta Senegal. Eta beste hiru, bertakoak dira. Beraien arteko bizikidetza oso ona da.



### **Zuri, zer ematen dizute?**

Asko. Aberastu egiten naute kultura aldetik. Denok ikasi behar dugu elkarrengandik. Kultura-trukea da. Sukaldean aritzea gustuko dudanez, otorduren bat edo beste antolatu dut. Mahaiaren bueltan bilduta, mokadu bat jateaz gain, eguneroko bizipenak partekatzen ditugu; lagun arteko harremana da.

### **Beren jatorrizko herrialdeetan, ba al zuten inolako esperientziarik nekazaritzan?**

Bai. Adibidez, nepalдарrek baratzea zuten etxean. Bestalde, aljeriarrak eta marokoarrak aurrez ere lan eginak ziren penintsulan, baratze intentsibo edo berotegietan: Murtzian, Almerian... Baratzean, zenbait produkturen haziak ereiteko probak ere egiten ditugu, jasotako esperientziaren arabera.

### **Zer aurki dezakegu Lazkaoko baratzean?**

Garaiko produktuak. Azken bultzada ematen ari gara porruei, azaloreei, aza eta aza gorriei... Berotegian, berriz, beste hainbat barazki ditugu: azenarioak, erremolatxa –udaberrirako ereinda–, espinakak, tipulak, patatak, letxugak... Oilategi bat ere badugu 35 oilorekin, eta horiek jarritako arrautzekin partaideek dozena bat eramaten dute etxera astearen bukaeran.



### **Bildutako produktuak ez dituzue merkaturatzen.**

Horrela da. Ekoizpena (barazkiak eta arrautzak) partaideen artean banatzen dugu autokontsumorako, guztiei berdinean emanez. Etorkizunera begira, produktuak merkaturatzeko aukera aztertzen ari gara. Horregatik ari gara ikasturte honetan batez ere plangintza lantzen, partaideak gai izan daitezzen etorkizunean beren baratzea beren kabuz antolatzeke eta bideratzeko.

### **Beasaingo Ekoguneko baratzeetara ere joaten zarete.**

Bai, ostegunetan. Beasaingo Udalak zenbait lursail utzi dizkigu. Hor bigarren urrats bat eman nahi dugu: aldameneko baratzeetako herritarrekin batera partaideen autonomia eta sozializatzen laguntzea. Hau da, beren kabuz joan daitezela, gizarteratzea sendotzeko.



### **Zer dago ikasketa-prozesutik harago?**

Partaideen motibazioak, proiektu berriei heltzeko gogoia eragiten digu, pausoak ematen jarraitu dezagun beraiek saltoa eman dezaten. Etorkizunean eraiki daitekeela ikusten duten pertsonekin aritzea oso atsegina da.

### **Zer helburu dute Lazkaoko baratzeak?**

Pertsona gehiagok guregana jotzea nahiko genuke, lurra lantzen ikas dezaten. Eta, nola ez, azken urratsa ematea ere gustatuko litzaiguke, lanbide honetatik bizitzeko aukera izan dezaten.

### **Imajinatzen duzu zure burua ikasle ohiei tokiko azoka batean barazkiak erosten?**

Amets hori egia bihurtzeko ari gara lanean.

